

ZUMARRAGAKO HAURREN ETA NERABEEN UDAL KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

2023-2026KO HAURREN ETA NERABEEN TOKIKO I. PLANAREN
BAITAN



OBJETIVO  DE DESARROLLO
SOSTENIBLE



Aurkibidea

1. Zer da?	3
2. Helburuak	3
3. Nork hartzen du parte?	3
4. Nola antolatzen da?	4
5. Zer funtzio du?	4
6. Zein da 2023-2024 ikasturterako aurrez ikusitako kontseiluaren jarduera?	5

Dokumentu honen xedea da Zumarragako haurren eta nerabeen organoak duen antolaketa eta funtzionamendua azaltzea. Parte hartzeko udal-espazio iraunkorra eta egonkorra da, batez ere kolektibo horri eragiten dioten alderdiei begira, eta koherentea da Haurren Eskubideen Hitzarmenean jasotako haurren parte-hartze printzipioarekin.

1. Zer da?

Zumarragako Haurren eta Nerabeen Udal Kontseilua (ZHNUK) kontsultarako eta elkarrizketarako organoa da, eta haur eta nerabeen eta helduen artean ikasteko testuingurua artikulatzen du. Zumarragako bizitzan eta bertako herritarrengan eragina duten gaien gaineko iritziak, balorazioak eta proposamenak egiten dituzte, udalerrian erabakiak hartzeko, batez ere, haur eta nerabeentzako udal-politikekin lotuta.

Haur eta Nerabeen Eskubideei buruzko Hitzarmena 1989an onartu zuen Nazio Batuen Erakundeak eta bertan jasotzen da haur eta nerabeek eskubidea dutela haiei eragiten dieten gaitan entzunak izateko eta kontuan hartzeko. Hitzarmenaren 12. eta 17. artikuluetan berariaz adierazten da haur eta nerabeek modu eraginkorrean parte hartzeko eskubidea dutela hainbat arlotan.

2. Helburuak

ZHNUKren helburu nagusia Zumarragako eta inguruko haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzea eta erraztea izango da, udal-politiken diseinuan haien ikuspegia txertatzeko.

3. Nork hartzen du parte?

ZHNUK Lehen Hezkuntzako¹ 5. eta 6. mailako 18 haur eta nerabek eta helduek osatzen dute. ZHNUK-ko ordezkariak hautaketa-dinamika baten bitartez aukeratzen dira udalerriko eta inguruko ikastetxeetan, eta ikasleek ordezkari bat hautatzen dute. ZHNUK-ko ordezkariak aukeratzeko **irizpideak** hauek dira:

- Lehiaren, publizitatearen, diskriminaziorik ezaren, tratu-berdintasunaren eta gardentasunaren printzipioak.
- Plazak erreserbatuko dira ikastetxe bakoitzerako, aurretik aipatutako printzipioak bermatzeko.
- Hauteskundeak ikasturte hasieran egingo dira programan borondatez parte hartu nahi duten hiru ikastetxetako ikasleekin (Gainzuri, La Salle eta UZ Ikastola). ZHNUK osatzeko hautatutako ikasleek legezko tutoreen baimena aurkeztu beharko dute.
- Banaketa ahalik eta parekideena egingo da udalerriko ikastetxeen artean.
- Maila bakoitzeko haurren eta/edo nerabeen banaketa parekidea egingo da.
- Parte-hartze eta ordezkaritza parekidea bermatuko da generoari dagokionez.
- Ikastetxeren batean ezarritako kuota baino hautagaitza gehiago baldin badaude, zozketa egingo da hautagaien artean ordezkariak aukeratzeko. Hautaketa ez dute inolaz ere helduek egingo zuzenean. Hautatzen ez dituzten haur eta nerabeak ordezkarien zerrendan geratuko dira, eta zerrenda hori aktibatu egingo da norbaitek uko egiten badu edo bajaren bat baldin badago.
- Ikastetxe bakoitzean bost edo sei ordezkari izango dira. Lehenengo ikasturtean aukeratuko dira organoa osatuko duten pertsona guztiak. Hurrengo ikasturteetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila hasten duten ikasleek haien plaza utziko diete Lehen Hezkuntzako 5. maila hasten duten ikasleei. Hala, organoaren jarduera ez etetea eta egindako lanak jarraipena izatea bermatuko da.

¹ Datorren ikasturteetan ez dugu baztertzen beste adin batzuetako haur eta nerabeek ere parte hartzea.

4. Nola antolatzen da?

Ikasturtean zehar, ZHNUK osoko bilkuretan eta lan-batzordeetan bilduko da:

Osoko bilkurak: Adingabeko ordezkariak eta Zumarragako Udaleko politikariak eta/edo teknikariak hartzen dute parte. Osoko bilkurak urtean gutxienez bi aldiz egin ohi dira. Bat azaroaren 20aren bueltan, Haurren Nazioarteko Eguna dela eta, eta bestea ikasturte amaieran.

- Irekierako osoko bilkurako ekintza nagusiak:
 - Kide berriak izendatuko dituzte.
 - ZHNUKek aurreko ikasturtean egindako eskariei eta/edo proposamenei erantzungo zaie, eta nola gauzatuko dituzten azalduko dute.
 - Ikasturtean zehar landuko duten gaia aukeratuko dute.
- Itxierako osoko bilkurako ekintza nagusiak:
 - Egindako lanaren berri ematea.
 - Oso bilkurari eskariak eta/edo proposamenak helaraztea.

Lan-batzordeak: Ordezkarik adingabeek parte-hartze aktiboa dute. Beharrezkoak diren lan-batzorde guztiak egingo dira hainbat arlo eta dimentsiotan haur eta nerabeentzat interesekoak izan daitezkeen gaiak jorrazteko (hezkuntza, hirigintza, ingurumena, azpiegiturak...).

Erabilitako dinamiken metodologia parte-hartzailea izango dute eta haur eta nerabeen hizkerara egokituta egon beharko dira. Lan-saio horiek maizago egingo dira (3-4 ikasturtean).

Hauek dira osoko bilkurak eta batzordeak antolatzeko **irizpideak**:

- Presidentea Zumarragako alkatea izango da edo, hala badagokio, alkateak alde aurretik eskuordetutako zinegotzi ordezkaria.
- Kontseiluaren osoko bilkurako idazkaria Kontseiluko dinamizatzailea izango da, eta funtzionario batek edo Udaleko Gazteria Saileko zinegotziak egin beharko du funtzio hori.
- Osoko bilkurak eta lan-batzordearen bilerak eskolako ordutegian izango dira eta saioak udaleko instalazioetan egingo dira, salbuespenak salbuespen.
- Bileren akta jasoko da eta Kontseilua osatzen duten pertsona guztiei bidaliko zaie. Ikastetxeetara eta familietara ere zabalduko da.
- Landuko diren gaiak lehen osoko bilkuran aukeratuko dira eta udalak proposatutako gaiak eta kontseiluko kideek proposatutakoak baloratuko dituzte.
- Kontseiluko pertsona gehienek adina kontuan hartuta, udalak beharrezko neurriak hartuko ditu Kontseiluak behar bezala funtziona dezan, eta haur eta nerabeek modu eraginkorrean parte har dezaten.
- Kontseilua osatzeko aukeratutako haur eta nerabeak Zumarragako edo Urretxuko herritarrak izan daitezke.

5. Zer funtzio du?

ZHNUK kontsultarako, kontrastatzeko, erabakiak hartzeko eta proposamenak egiteko organoa da, osatzen duten kideen adinarekin koherentzian. Proposamenen bideragarritasuna aztertzen dute eta hauek dira lan-arloak: kanpainak diseinatzea, udaleko jarduketak lehenestea, proposamenak bozkatzea, diagnostikoa eta plana egiteko lankidetzan aritzea, etab.

Jarraian azalduko ditugu egin ditzakeen funtzioen adibideetako batzuk:

- Udalerriko haurren eta udal-autoritateen arteko zubi-lana egitea, haurrek dituzten iritziak, beharrak eta ezinegonak udal-gobernuari helaraziz, eta alderantziz.
- Haur eta nerabeek udalerriko bizitzan duten parte-hartzea sustatzen duten jarduketak proposatzea;
- Udalerriko jarduketak, politika publikoak eta beste diseinatzea udaleko sailekin eta beste erakundeekin lankidetzan;
- Udalerriko jarduketak eta haur eta nerabeei eta haien familiei zuzendutako jarduerak garatzeko eta ezartzeko irtenbideak, ideiak eta proposamenak eskaintzea;
- Tokiko erakundeetan udalerriko haur eta nerabeen ikuspegia ordezkatzeko;
- Belaunaldien arteko topaketetan parte hartzea;
- Eta abar.

6. Zein da 2023-2024 ikasturterako aurrez ikusitako kontseiluaren jarduera?

